


zokomiran




40.ean sartuta

Beharbada, ez zara konturatu, edo agian bai, baina azalean bertan iragarri dugu: urte honen amaieran, esku artean duzun aldizkariak 40 urte beteko ditu, Durangoko Azokan, hain zuzen ere. Lagun talde batek izan zuen oinarrizko euskarazko argitalpen bat egiteko ideia zoragarria, euskara ikasleek, eskola amaituta, hizkuntza erabiltzen ez zutela ikusita. Eskolatik kanpo baliatzeko materiala behar zuten, lanean hasi ziren eta AIZU! jaio zen. Talde eragilean, erredakzio taldean, Alberto Ugarte, Idoia Santurtun, Tito Mardones, Arantza Etxebarrieta, Esther Zarandona, Miren Marcos, Alberto Angoitia, Sara Barandiaran eta Ibernalo Otsoa ziren; talde grafikoan, Jabi Ubierna, Erramun Landa, Amaia Montorio eta Jule Garmendia; Amaia Fuldain, idazkaritza eta artxibo lanetan; eta Maite Zarandona eta Angel Martinez kolaboratzaileak ziren. Haiek egin zuten zailena, argitalpena abian jartzea, alegia. Ezin esan harrezkerotik **berez**¹ eta erraz egin duenik ia 40 urteko bidea, baina ibilbide polita izan da. Historia horren **mugarri**² batzuk kontatuko dizkizuegu aurten hilez hil.

1. **Berez**: bakarrik, laguntzarik gabe.

2. **Mugarri**: une garrantzitsu, gertakizun aipagarri.

ZOKOMIRAN



Ezkerretik eskuinera: Alberto Ugarte Gastamintza, eta Gerediaga Elkarteak Antton Mari Aldekoa-Otalora eta beste kide bat. Jabi UBIERNA.


Duela 40 urte...

AIZU!-k 40 urte beteko ditu egunotan, abenduaren 3an ospatuko dugun Euskararen Egunaren bueltan, hain zuzen. 1981ean aurkeztu zen, Durangoko euskal liburu eta disko azoka herriko merkatuan egiten zenean. Horren **leku-kotza**¹ jasotzen dute zuri-beltzeko argazkiok, non aldizkariaren lehen koordinatzailea, Alberto Ugarte **zena**², ageri den. AIZU!ren sortzaile batzuen esanetan, bera izan zen aldizkariaren "*benetako arima eta ekintzailea*." Denei, gure esker onik beroena!

Eta bitxikeria bat: Ugartek esku artean duena lehen zenbakiaren ale bat da? Bada...ez! Txorritxo batek kontatu digunez, egileek inprimatutako prototipoa da, aldizkaria **artean**³ inprentan zegoelako. Froga, AIZU!ren 453. zenbakian (4.or.): azalaren atzealde urdina zen.

“Aldizkari guztiz askea zen, zirikatzailea eta freskoa”

AIZU! aldizkariaren 0 zenbakia kaleratu zenean, 1981eko abenduan, Erramun Landa Mendibe (Ea, 1958) Arte Ederretako ikaslea zen, soldaduska¹ amaitu berria. Egun, Erramun Mendibelanda (ama hil zitzaionean hartu zuen izen artistikoa) Arte Ederretako irakasle erretiratu berria da. Tarte-an, ibilbide oparoa egin du pinturaren, ilustrazioen, grabatuen eta karte-len arloan. Espainiako Grabatuko Sari Nagusia ere eman zioten, 2008an, baina hori beste istorio bat da. **M. EGIMENDI.**



AIZU! aldizkariaren 0 zenbakiko posterra (1981eko abendua)
Erramun Landa Mendibek egina.

AIZU! aldizkarian ere aritu zen Erramun, hasiera-hasieratik 1990eko udaberrira arte: ilustrazioak egiten, aldizkaria maketatzen, azalak diseinatzeko... Artxiboko aldizkari zaharrak **aletzer**² ekarri dugu gurera, **batailatxoak** gogoratzen eta kontatzera. Eta, bide batez, berak egindako bost azal aukeratu ditu artikulu honen azpiko zinta osatzeko.

Erramunek dioenez, Alberto Ugartek (duela urte batzuk hil zen) batu zituen egitasmoan parte hartu zutenak: “*Deustuko Unibertsitatean, Euskal Filologiako ikaslea eta Euskal Kultur Mintegiko euskara irakaslea zen, eta bere inguruan hainbat lagun bildu zituen, baita Arte Ederretakoak ere, egitasmoa martxan jartzeko*.” Arte Ederretako ikasle Jabi Ubierna ere tartean zen, eta “*lagun minak gine- nez, hark proposatu zidan talde grafikoan parte hartzea*.”

Bilera asko egiten omen zituzten: “*Denon artean pentsatu zer- taz hitz egin, zer artikulu geneuzkan begiratu... antolakuntza han- dia geneukan lanean. Eta AIZU! izena ¡Hola! aldizkarian inspiratuta hartu genuen, kar-kar!*.” Aldizkari “*guztiz askea*” zela dio, “*zirikatzaile- a eta freskoa*.” Hori guztia garai hartako testuinguru sozial, eko- nomiko eta politikoan.

Aldizkaria maketatzen, Ubiernak prestatutako orrialde han- diak erabiltzen ei zituzten, eta haietan itsasten zituzten, banan- banan, argazkiak, ilustrazioak, marrazkiak, testuak... **Artaziak**³, espraiak eta margoak zituzten lan tresna, eta fotomekanikatik





ekarritako paperezko **biribilki**⁴ luzeak ere bai: “*Idazkiak jasotzen genituenean erabakitzen genuen nolako zabalerarekin eta zein le- tra tiporekin nahi genituen aldizkarian, eta Creza fotomekanikan inprimatzen zizkiguten*.” Gero, **adabakiz**⁵ betetako orrialde haiek osatzen zuten paper meta handia hartu, “*eta inprentara abiatzen ginen, taxian edo!*.” Lan mota horren ondorioz, gelako horma guz- tiak, baita zorua ere, paperez josita edukitzen zituztela dio: “*Behin, lapurrak sartu zitzaizkigun, eta udaltzainek, hura ikusitako- an, uste izan zuten lapurrek utzitako **anabasa**⁶ zela, kar-kar!*.”

Aspaldiko kontuak dira, bai. AIZU!, gaur egun, ordenagailuz maketatzen da, eta posta elektronikoz bidaltzen da inprentara. Ez dira alferrik joan ia 40 urte!

1. **Soldaduska:** servicio militar (es), servie militaire (fr). 3. **Artaziak:** tijeras (es), ciseaux (fr).
2. **Aletu:** desgranar (es), énumérer (fr). 4. **Biribilki:** rollo (es), rouleau (fr).

5. **Adabaki:** partxe, petatxu.
6. **Anabasa:** kaos, nahaste-borraste.







Artean AEKn sartu barik, AIZU!k kilometroa erosi zuen 2. Korrikan, Bilbon. Horrela kontatu zuten 1982ko udako aldizkarian, hiru orrialdeko argazki kronika baten bidez.



Harrezkero, AIZU!k fin jarraitu du Korrikaren berri ematen. Adibide batzuk: **1.** AIZU!k, AEKrekin bat egin berritan, **3.** Korrikari buruz plazaratu zuen gehigarri bereziaren azala (1983ko azaroa). **2.** 6. Korrikari eskainitako azala (1989ko apirila). **3.** 8. Korrikari eskainitako azala (1993ko martxoa). **4.** 9. Korrikari eskainitako azala (1995eko otsailak 15). **5.** 12. Korrikari eskainitako azala (2001eko martxoa). **6.** 17. Korrikari eskainitako azala (2011ko apirila).

Aizu! eta Korrika

Aurreko zenbakian kontatu genuen moduan, AIZU!k eta AEK-k 1983ko azaroan egin zuten bat, hain zuzen ere 3. Korrika (Baionatik Bilbora, abenduaren 3tik 11ra) hasi aurretik. AIZU!k lan gehiago eginez “ospatu” zuen bat-egitea: Korrikari buruzko gehigarri berezia kaleratu zuen. Orduko koordinatzaile Iber Otsoa, gainera, lasterketara joan zen, AEKren prentsa bulegoko kideei laguntzera: *“Han ibili ginen, aurrera eta atzera. Ikusten genuenari Korrika arduradunek kontatzen zigutena gehitu, eta telefono kabinak bilatzen genituen informazioa bidaltzeko”*. Une *“hunkigarriak”* gogoratzen ditu: *“Gaueko kilometro bakartiak, Pirinio aldean eta”,* besteak beste. Baita bitxiak ere: *“Arrasateko kuadrilla batek kilometro pila egin zuen, Maritxu Kajoirekin batera, kar-kar!”*. Eta Korrika Bilbon sartu zenean, *“furgonetako lagunok lekukoa hartu genuen, Begoñan”*. M. EGIMENDI.

1. Gehigarri: suplemento (es), supplément (fr).



40 urte

2021. urtearen bukaeran, AIZU!k 40 urte beteko ditu. Horren harira, aldizkariaren historian argitaraturiko hainbat kontu ekarriko ditugu hona, hilero.



Iber Otsoa, 3. Korrikan, lekukoa eskuan duela. Berarekin batera, ezkerretik eskuinera, Karmel Etxebarria, Mikel Alonso, Joserra Egiluz eta Bittor Allende.

Noizko Euskal Herri euskalduna?

Eta “Noiz arte iraungo dugu horrela?”. Galdera pare horrekin bukatu ohi zuen AIZU!ko tukan erretxinak¹ hileroko galdera sorta. 1985eko urrian hasi zen puzkerrak² botatzen, eta hutsik egin gabe jarraitu zuen 1994ko abendura arte. Orduan, jaioterriira itzuli omen zen, Amazoniako oihan tropikalera, hain zuzen, euskaldunduta. **M. EGIMENDI.**



Aldizkariaren maskota izan zena Jabi Ubierna irudigilearen eskutik iritsi zen. Tukanak 1982ko azaroan zapaldu zuen AIZU! aurreneko, aldizkariaren lehen urtebetetzean. Agertu bezain laster erakutsi zuen bere izaera **ipurterre**³ eta **arranguratsua**⁴. Zuhaitz baten gainean erdi ezkutatuta, hauxe bota zuen: “AIZU!ren urtebetetzea da eta oraindik ez digute ezer erregalatu.” Ubiernak tukanaren jaiotzaz kontatzen duenez, “**esaldi errazak eta laburrak** erabiliko zituen **pertsonaia bat behar genuen**.” Horrez gain, bi elementu azpimarratzen ditu pertsonaiaren sortzaileak: “**Batetik, tukanak AIZU!ren irakurlea irudikatzen**⁵ zuen, ‘euskara ikasten ari naiz’ horren metafora bisuala zen. Bestetik, euskararen kontra egiten ahalegintzen diren indar politiko-instituzionalek lokarria ipini zioten mokoa ixteko. Hortaz, **erronka handia** zuen, **korrontearen kontra** ikasi behar zuelako.” Ubiernak aitortzen du tukana ez dela “**hiztunaren metaforarik onena, baina txori deigarria delako aukeratu genuen**. Moko luze-luzea du, hitz egiteko bozgorailu ederra. Eta, inork uste ez bezala, gurea mintzatzeko gai zen.” Beste anomalia bat ere bazuen: buruko luma sorta koloretsua. Tukanek, berez, ez dute **gandorrik**⁶, baina, Ubiernaren esanetan, “**luma punk horiek euskararen aldeko harrotasuna erakusten zuten**.”

Ubiernaren ostean aldizkariaren diseinuan jardun zuten irudigileek **eutsi**⁷ egin zioten tukanari, baina 1990eko martxoan Esteban Montorio arduratu zen AIZU!ren diseinuaz, eta tukana **antzaldatu**⁸ ere egin zuen batzuetan. Esate baterako, AIZU!k ehungarren zenbakia kaleratu zuenean, 1991ko apirilean, itxura berritua agertu zuen azalean; barruko orrialdeetan, elkarriketa luzea egin zioten “**txori maiteari**”. AIZU!ren ordura arteko gorabeherak kontatzeaz gain, hainbat perla bota zituen tukanak, AEK-ko ikasleak zirela bere jakirik gogokoena, adibidez, edota **artean**⁹ ez zuela bere bihotzeko azukre koskorra aurkitu, “**Euskal Herri alde honetan ez dagoelako tukan politik**”. Montoriok lau urte eman zituen AIZU!n lanean, eta bere garaian aldizkariak “**XIX. mendetik XX.era**ko urratsa” egin zuela gogoratzen du, “**diseinurako lehen ordenagailua erosi zenean**.” Baina hori beste istorio bat da.

1. Tukana, aldizkariaren azalean, 100.

zenbakiaren ospakizunean.

2. Montoriok 1992ko urrian eraman zuen tukana mantxetara, eta 1994ko abendura arte geratu zen bertan.

3. Tukanaren aurreneko bisita, aldizkariaren lehen urtebetetzean.



1. Erretxin: cascarrabias (es), grinceux, -euse (fr).

2. Puzker: pedo (es), pet (fr).

3. Ipurterre: urduri, geldi egoten ez dakiena.

4. Arranguratsu: kexati.

5. Irudikatu: representar (es), représenter (fr).

6. Gandor: cresta (es), crête (fr).

7. Eutsi: mantendu.

8. Antzaldatu: itxura aldatu.

9. Artean: oraindik, ordura arte.




40 urte

2021. urtearen bukaeran, AIZU!k 40 urte beteko ditu. Horren harira, aldizkariaren historian argitaraturiko hainbat kontu ekarriko ditugu hona, hileroko.

Aldizkarian ibili zen bitartean, tukanak buruan bueltaka izaten zituen kezka eta haserreak agertzen zituen hileroko Eguneroko Puzkerrak atalean. Makina bat galdera-puzker bota zuen bederatzi urte pasatxoan bere zutabetik!

AIZU! aldizkariaren orrietan, irudigile, marrazkilari, komikilari eta beste artista askoren lanak argitaratu izan dira. Horietako batzuek utzia dute mundu hori, baina beste batzuek aurrera egin eta arrakasta lortu dute beren ibilbide artistikoan. Adibide gisa, bi azal eta bi komiki hauek.

M. EGIMENDI



1.

1. 1990eko martxoa: Gentz del Valle de Lersundik berak sortutako margo bat utzi zion Erramun Mendibelandari AIZU! aldizkariaren azalerako.

2.

1998ko uda: Manu Muniategiandikotexea AIZU!ko talde grafikoan izan zen tarte labur batez, eta, handik urte batzuetara, bere margolan bat aldizkariaren azal bilakatu zen.

3.

1988ko maiatza: Ion Arretxe marrazkilari, arte zuzendari eta idazle zena Komikaizu! gehigarria egiten zuen komikilari taldeko partaide izan zen.

4.

1988ko azaroa: Jabi Ubiernak eta Iber Otsoak sortutako Mariberri Euskaltegieta pertsonaiaren istorioak Pernan Goñi Olalde ere marraztu zituen.

3.



2.



4.



Komikaizu!, zortzi orrialde koloretan haluzinatzeko

Marrazkiek eta ilustrazioek garrantzi handia izan zuten AIZU!ren lehen urteetan, baina komikiak asko **ugaritu**¹ ziren, batez ere, *Komikaizu!* gehigarria argitaratu zen bitartean: 1988ko martxotik 1991ko udara. Arrisku handia hartu dugu erreportaje honen gaiarekin: komiki ugari sinadurarik gabe argitaratu zirenez, ziur izen asko utzi ditugula aipatu gabe. Hortaz, barkamena eskatu behar dugu aurretiaz. Halere, norbaitek lagundu nahi badigu, badaki non gauden. Bidali izenak, eta pozik luzatuko dugu zerrenda, artista anitzek kolaboratu izan baitute AIZU!n.

Pernan Goñi Olalde da horietako bat. Seguruenik, AIZU!n komiki eta ilustrazio gehien argitaratu zituenetakoa, sinadura ezberdinekin. Marrazkilari eta komikigile **ez eze**², maketatzaile ere aritu zen garai hartan. Horrez gain, askotan bera arduratzen zen komikiak lortzeaz, *Napartheid* fanzineko lagunena zein beste batzuenak. Gogoan du nola eskratu zuen behin komiki bat: "Goiz batean, ezagutzen ez nuen etxe batean amaitu genuen gau pasa, eta sofan etzatean ondoko aulkian botata zegoen komiki on batekin egin nuen topo. Hain zuzen ere, komiki bat behar nuenean aldizkarirako! Galdetuta, inork ez zekien ezer, orrialde haiekin nahi nuena egiteko esan zi-

daten. Bada... AIZU!n argitaratu zen, kar-kar!". Egin-dako lanak ez izenpetzearen **ajeak**³.

Goñik sinadurei buruz dioenez, "orduan esaten zen lanak mugimendu sozial baten baitan eginak zirela, eta egileak militante gisa jokatzeko zuela." Hori alde batetik, baina, bestetik, komikiak **izenpetzea**⁴ estrategikoki komenigarria ote zen pentsatu behar zen, "ideia asko 'gerrillariak' zirelako. Orduko logikaren arabera, gatazkan egonik, arerioak genituen; beraz, ez genuen sinatzen geure burua **babestearren**⁵". Gainera, sinatzea ekintza kapitalistatzat jotzen omen zen: "Gaizki ikusia zegoen irudiaren jabegoa, curriculum osatu nahi izatea... Halere, ni izenpetzearen aldekoa nintzen, lanaren gaineko erantzukizuna hartzeko, txarra zein ona izan. Ondo badago, zergatik ez onartu publikoki meritu hori, musikariena edota idazleena bezala? Halako eztabaidak izaten genituen".

Hala, ez ditugu ezagutzen *Komikaizu!* gehigarrian argitaratu ziren lan guztien egileak. Haatik, hauen berri izan dugu: Jabi Ubierna, Mikel Mardones, German Maiz, Ion Arretxe, Alberto Uribarri, *Napartheid*eko hainbat kide, Rober Garay, Luis Duran, Ion Iñaki Artetxe, Pedro Rivero, Erramun Mendibelanda, Asier Esnaola...



1. Ugaritu: aumentar (es), augmenter (fr).
2. Ez eze: ere bai, baita ere.
3. Aje: deformación (es), déformation (fr).
4. Izenpetu: sinatu.
5. Babestearren: babesteko, defendatzeko.

Guk dakigula, bi emakumek baino ez zituzten argiratu beren lanak Komikaizu! gehigarrian. Bea Anitua izan zen lehena, Hau dena aldatu nahi nuke kontakizunarekin, 1990eko apirilean. Gerora ere jarraitu zuen beste batzuk egiten, Komikaizu! bukatu arte. Olga Zuluetak, berri, bakarra kaleratu zuen, 1991ko ekainean.

AIZU! aldizkaria hamaboskaria ere izan zen

Bai, hala da. Antzinako harpidedunek eta irakurleek gogoratuko dute, baina azken garaietakoek agian ez dute datu hori ezagutuko. AEKren aldizkariak ehun zenbaki argitaratu zituen martxa horretan (hilean bi) 1995eko otsaila eta 1999ko uda bitartean. Arrazoia? Aldaketa beharra. AEKren


Batzar Nagusiak aldizkaria irauli behar zela erabaki ostean sortu zen egitasmo berria. Itxura ez ezik, argitalpenaren maiztasuna ere aldatu zen, baina tinko eutsi zitzaion hasierako xedeari: euskara ikasten ari direnen aldizkaria izatea. M. EGIMENDI.

Behin
bistakoa izan
zen aldaketa,
oso
nabarmena:
aldizkariaren
formatua,
mantxeta,
tukanik ez,
paper
birziklatua...



1994ko abenduan iragarri zion AIZU!k irakurleei otsailean ustekabean harrapatuko zituela, baina beste ezer aurreratu gabe.

1999ko uztailaren 16ko azala. Horrekin amaitu zen hamaboskariaren historia, bost urte pasatxoan 100 zenbaki kaleratu ostean.



Xelebrea¹ 1994ko abenduko azala, ezta? Martxelo Otamendiri egin zioten orduan el-karrizketa nagusia, erabat **bidegabeki**² desagerrarazitako *Euskaldunon Egunkaria* kazetaren zuzendariari, alegia. Honela erantzun zion Otamendik "Zer ez zenuke sekula egingo?" galderari: "AIZU!ren azalean torero jantzita agertu". Horrelako erronkaren aurrean, AEKren aldizkariako lantaldeak ezin izan zion tentazioari eutsi, eta Otamendi torero jantzita agertu zen AIZU!ren azalean. Bitxikeriak bitxikeria, askoz ere gauza interesgarriagoak kontatu zituen *Euskaldunon Egunkariaren* zuzendariak elkarriketa hartan, handik urte batzuetara euskara hutsean kaleratzen zen egunkari bakarra bortizki itxiko zutela imajinatu ere egin gabe, baina hori beste istorio bat da.

Erabateko aldaketa

Azal hura zuen aldizkaria argitaratu ondoren, AIZU! "desagertu" egin zen 1995eko urtarrilean. Ez zuen argitalpenik kaleratu, lantaldea buru-belarri eta denboraz **estu**³ zebilelako egitasmo berria osatzen. 1995eko otsailaren 1eko datarekin plaza-ratu zen 141. zenbakia, hamaboskariaren lehenengoa. Aldea nabarmena zen. Haste-ko, formatu handiagoa: lau zentimetro lu-zeagoa eta hiru zentimetro zabalagoa zen. Mantxeta ere, oso ezberdina: handiagoa eta letra tipo "potoloagoarekin". Tukana ere ez zen inondik inora ageri: betiko joana zen. Eta aldizkaria esku artean hartu bezain laster, beste bi aldaketa nabarmentzen zi-ren. Batetik, paper birziklatuz osatuta ze-

goela. Bestetik, orrialde gutxiago zekartzala: 32 (lehen, 56). Erraza da horren arrazoia asmatzea: hilean bi aldizkari argitaratu be-har baziren, **baliabide**⁴ gehiagorik gabe, nahitaezkoa zen orrialde kopurua murriz-tea.


Hala ere, nahiko lan hilean bi aldizkari kaleratzeko. Horren ondorioz, AIZU!k la-guntzaile sarea indartu behar izan zuen, eta, aurretik zituen kolaboratzaileei **eus-teaz**⁵ gain, norberaren alorrean adituak zi-ren kolaboratzaileak bilatu behar izan zi-tuen. Izan ere, atal berri batzuk sortu ziren orduan, hala nola *Bertso potajea* (bertsola-ritzari buruzkoa), *Berdez* (ekologiaz aritzen zen), *Mundu Bolari Bueltaka* (bidaia), *Mihiluze* (euskararen gaineko zalantzak), *Dosoma eta Mogorra* (munduko mitolo-giak), *On/Off* (elkarriketa), *Pott!* (komi-kiak), ipuinak, sukaldaritza errezetak... Eta, 1998ko irailaren 1etik aurrera, baita *Bi pareta* atala ere (iritzi artikulua). 1999ko uztailaren 16ko datarekin argitaratu zuen AEK-k AIZU! hamaboskariaren azken zen-bakia, eta lau hilabeteren buruan (1999ko azaroa) hasi zen berriro hilero argitaratzen, **atzera**⁶ ere lantaldea eta itxu-ra guztiz eraberrituta. Hortxe bukatu zen hamaboskariaren ibilbidea.

- 1. Xelebre:** curioso, -a (es), curieux, -euse (fr).
- 2. Bidegabeki:** justiziarik gabe.
- 3. Estu:** larri, eskas.
- 4. Baliabide:** recurso (es), recours (fr).
- 5. Eutsi:** mantendu, izaten jarraitu.
- 6. Atzera:** berriz, berriro.



1996ko abenduan, 15 urte

AEKren aldizkariak bi argitalpen plazaratuz ospatu zuen 15. urteurrena, 1996ko abenduaren 1ean, hamaboskaria zela. Ondoko orrialdean, 181. zenbakiaren azal alai eta koloretsua ikus daiteke, baina, urteko aldizkarietz gain, AIZU!k bi argitalpen berri eraman zituen Durangoko Liburu eta Disko Azokara: **Dostaizu!** jolas bilduma eta **Aizu, Paddy!** ipuin liburua, biak ala biak aldizkariarekin estuki lotuak. M. EGIMENDI.



Ezkerrean, Dostaizu! jolas bilduma. Goian, Aizu, Paddy! ipuin liburua azala.

Izan ere, *Dostaizu!* kutxaren barruan zeuden *Idearipez*, *Marrazkitz* eta *Debeikaizu!* jolasen fitxak pixkanaka argitaratu zituen AIZU!k aurreko urteetan. Urtebetetzea ospatzeko, bilduma kaleratzea erabaki zenean, *Asmaizu!* jolas berria diseinatu eta *Dostaizu!* kutxan sartu zuten. *Aizu, Paddy!* liburua, berriz, Paddy Rekaldek 1995etik aurrera aldizkarian kaleratu zituen ipuinekin osatu zen.

Dostaizu!

Lau joko zeuden *Dostaizu!* kutxan: *Idearipez* (era guztietako galdera-erantzunak), *Ma-*

rrazkitz (hitzak asmatzeko, marrazkien bidez lagunduta), *Debeikaizu!* (gauzak deskribatzeko, hitz batzuk erabili gabe) eta *Asmaizu!* (hizki zehatz batez hasitako ahalik eta hitz gehien pentsatzeko). Oso lagungarriak ziren guztiak mintzamen lantzeko, hiztegia ikasteko eta jokalarien kultur maila aberasteko, mahai inguruan jolasean.

Aizu, Paddy!

Paddy Rekaldek (orduan Paddy Txinaski) hilerro narrazio bat argitaratu zuen AIZU!n, AEKren aldizkaria hamaboskari izaten hasi zenetik. 1996ko abendurako, ipuinok zuten

harrera ona ikusita, *Aizu, Paddy!* bilduman batu ziren, **artean**² argitaratu gabeko beste ipuin luzeago bat gehituta: *Teac Leanna*.


Bukowski, Eire, zulo ilunetako alkohol zurrutadak, euskal lur ahandziak, sexua, punka, folka eta telekasterrak... Osagai horiek guztiak, eta gehiago, biltzen ziren koktelera hartan. *Dostaizu!* jolas bildumaren antzera, liburu hau ere **agortu**³ egin zen.

1. **Biak ala biak:** bata eta bestea, bai bata bai bestea.
2. **Artean:** oraindik, oraino.
3. **Agortu:** bukatu, amaitu.

2021. urtearen
bukaeran, AIZU!k
40 urte beteko ditu.
Horren harira,
aldizkariaren
historian
argitaraturiko
hainbat kontu
ekarriko ditugu
hona, hilerio.

AEK-ko ikasle guztiak, AIZU!ren harpidedun

AEKren Batzar Nagusiak 1999an erabaki zuen bere ikasle guztiek AIZU!ren harpidetza doan eskuratuko zutela euskara ikasteko matrikulatzean. Hala, uztailaren 16an 240. zenbakia kaleratu ostean, AEK buru-belarri hasi zen proiektu berria prestatzen. **M. EGIMENDI.**



Lantalde berria martxan jartzean, AEK-k inoizko apusturik sendoen egin zuen bere aldizkariaren alde. Besteak beste, talde finkoan egongo ziren kideak ez ezik, kolaboratzaileak ere kobratzen hasi ziren beren lanengatik, ordura artekoek ez bezala.

Ana Unanue koordinatzaile eta kazetariak eta Joseba Beramendi *Exprai* diseinatzaile eta maketatzaileak ekin zioten lanari. Bien artean diseinatu zuten aldizkari berria, eta azaroan kaleratu zen etapa berriko lehen zenbakia.



Bestalde, aldizkariaren bulego nagusia Bilbotik Iruñera eraman zen eta erredakzio taldea asko indartu zen, kazetariak hainbat lekutan kokatuta: Ana Unanue, Iruñean; Iñigo Gago, Bilbon; eta Franck Dolosor,



AIZU! tresna interesgarria eta lagungarria da euskara ikasleentzat.



Baionan. Laguntzen, Gotzon Hermosilla (orduan AEKren komunikazio bulegoaren arduraduna) eta Nafarroako AEKren arduradun Mikel Aldasoro kazetaria.

Aldizkaria diseinatzean, publizitatea ere kontuan izan zutela gogoratu du Beramendik: "Errentagarria izateko zenbat modulu sartu ahal ziren eta zenbat saldu behar ziren kalkulatu genuen, edukiaren eta publizitatearen arteko proportzio **orekatuari**¹ eutsita betiere". Horrez gain, ez omen zuten presio ekonomiko berezirik sentitu. Una-

nuek dioenez, "kudeaketa ekonomikoa ez zegoen gure esku. Bezero nahiko finkoak genituen, hartu berri zen erabakiari esker, eta zuzeneko salmentei ez genien gehiegi erreparatzen. Guk zatirik politena egiten genuen, aldizkaria bera". Hala, biek gogoratzen dute garai hura dibertigarri eta atsegina: "Nahi genuena egiteko askatasuna genuen, eta disfrutatu egin genuen".

AIZU!k ia 22 urte bete ditu oinarri horri eutsiz, tarteka aldaketa txiki batzuk eginda. Orain, 2021eko irailean, **antzaldatuta**² datoz aldizkaria zein www.aizu.eus ataria. Haatik, oraindik ere baditu orduko atal asko, ikasle, irakasle eta harpidedunen artean tarteka egiten diren galdetegiak halaxe eskatzen dutelako. Ea esku artean duzuen ere gustuko duzun!

1. **Orekatu:** *equilibrado, -a (es), équilibré, -e (fr).*
2. **Antzaldatu:** *itxura aldatu.*
3. **Gailendu:** *nagusitu, besteren gainetik egon.*


AEKREN BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIA

Joan Mari Larrarte Gipuzkoako AEKren arduraduna eta AEKren Batzorde Nazionaleko kidea zen 1999an. Hark idatzi zuen AEKren Batzar Nagusiak ontzat eman go zuen txostena, eta ondo gogoratzen du kezka zegoela AEKn AIZU!ren etorkizunaz: "Ez aurrera ez atzera zegoen aldizkaria. Bazituen harpidedunak, eta kioskoetan ere saltzen ziren ale batzuk, baina... Hainbat aukera aztertzen hasi ginen, AIZU!ren ibilbidea amaitutzat ematea, besteak beste, bere zikloa bete zuelakoan". Halere, beste hausnarketa bide bat **gailendu**³ zen: "AEK-k badu aldizkari bat, tresna interesgarria eta lagungarria

izan daiteke euskara ikasleentzat, hala irakurgai nola material didaktiko gisa. Zergatik ez egin AEK-ko ikasle guztientzako aldizkaria, denek jaso dezaten?"

AEK barruan, iritzi hori ez omen zen erabat nagusia, baina proposamena Batzar Nagusira eraman eta aurrera atera zen. Horrekin batera, aldizkaria guztiz berritzea erabaki zen, beste hainbat ezaugarri aldatuta: lantaldea, egoitza, maiztasuna, itxura, kolorea, edukiak... Orduan, denbora tarte bat hartu zuen AEK-k aldizkari berria diseinatzeko, eta 1999ko azaroan kaleratu zen AIZU! berrituaren lehen zenbakia (241).

AIZU!k pozarren ospatu zuen 25. urtebetetzea



AIZU!ri buruzko erakusketa ibiltariaren afixa.

1981 eta 2006 artean aldizkarian lanean ibilitako lagun asko elkartu ziren, Bilboko Kalderapeko kulturgunean, AIZU!ren mende laurdeneko historiari buruzko erakusketa ibiltaria inauguratzeko. Erakusketak Hego Euskal Herriko lau hiriburuak eta beste ia 20 herri bisitatu zituen 2006ko azarotik 2007ko ekainera bitartean. Ikasturte hartan, AEKren aldizkariak Merezimenduzko 2007 Argia Saria ere jaso zuen. M. EGIMENDI.

Zirraraz betetako ikasturtea izan zen hura AIZU!ko ki-deentzat, eta, erakusketa antolatzeaz gain, aldizkari berezia (312. zk.) argitaratu zuten 2006ko abenduan, argitalpena 1981eko Durangoko Azokan aurkeztu zenetik 25 urte bete zirenean, hain zuzen ere. Zenbaki hark itxura ezberdina hartu zuen. Patxi Uhartek Zaldi Eroa ilustratzaileak marraztu zuen azala, 0 zenbakiaren azalean inspiratutako bertsioa. Horrez gain, aldizkaria ohi baino potoloago eman zen argitara, hileroko 42 orrialdeei beste 44 gehitu baitzizkieten. Zertarako horrenbeste orrialde? Bada, zenbaki hartako editorialak azaldu bezala, 25 urtean AIZU!ri



312. zenbakiaren azala, Zaldi Eroak egina.

laxe argitaratzeko, ezer aldatu gabe, "zuzentzaileari eta Euskaltzaindiaren azken arauari **erreparatu**² gabe, besteak beste, orduan arauak beste batzuk zirelako". Aukeraketa, halere, "latza eta erabat subjektiboa" izan zela aitortu zuten. Bestalde, aldizkaria egin zutenak omentzeaz gain, hilero irakurtzen zuten "milaka ikasle sufrituak" ere gogoan izan zituzten 25. urteurreneko zenbakian.

Erakusketa ibiltaria osatzeko ere azal **hautaketa**³ egin zen, urte eta diseinu mota anitzeko 25 azal ibili baitziren batetik bestera. Bilboko Kalderapeko kulturgunean hasita, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta ia beste 20 herritan egon zen ikusgai, gehienetan AEKren euskaltegietan (Portugaleten, Basaurin, Iruñean, San Adrianen, Donostian, Irunen, Azkoitian, Gasteizen, Laudion...). Halere, ezagutu zituen beste **egoitza**⁴ batzuk ere, hala nola BBKren Getxoko kultur aretoa, Gasteizko Hala Bedi irratia edota Igorreko kultur etxea.

Hamabost urte geroago, 40 zenbaki biribila delakoan, beste urtemuga bat nabarmentzen gabilta. Dagoeneko kaleratu ditugu aldizkari eta webgune berrituak, eta aurten ere berezia izango da abenduko zenbakia, 40 urte eta 462 zenbaki ez direlako alferrik pasatzen. ●

1. **Hats:** arnasa.
2. **Erreparatu:** arreta jarri.
3. **Hautaketa:** selección (es), sélection (fr).
4. **Egoitza:** sede (es), siège (fr).
5. **Betea:** guztiz sartuta.
6. **Adore:** ausardia, kemen.

"hatsa" eman zioten ia 400 lagun langileak" omendu nahi izan zituztelako. Hala, mende laurdenean AIZU!n argitaratutako 25 azal, 25 gertakari, 25 elkarrizketa, 25 AEKomeria, 25 komiki, 25 iragarki, 25 liburua eta 25 egile hautatu zituzten zenbaki bereziko, kaleratu ziren unean zeuden bezalaxe

2007KO ARGIA SARIA

AIZU!rentzat ahaztezina izan zen 2006/07 ikasturtea, Merezimenduzko Argia saria ere jaso baitzuen 2007ko urtarrean. Honela azaldu zuen Argia aldizkariak saria AEKren aldizkariari emateko arrazoia: "Euskarazko prentsa krisi **betea**⁵ zegoen garai hartan, aldizkari berri bat sortu eta biziartzeko, oso argi eduki behar zen xedea: euskararen irakaskuntza bultzatzea eta euskara ikasten ari ziren helduei beren neurriara egindako komunikabide berria eskaintzea. Hamaika polemika, gaizki-ulertu eta saltsaren erdian egotea egokitu zaie urteotan, urte lasaiagoak eta une garrantzagoak bizi behar izan dituzte. Baina beti lortu izan dute beren zerbitzu lana betetzen jarraitzeko **adorea**⁶, batzuetan kopetilun, bestetan ausart, askotan umoretsu... beti aurpegia emanez".



AIZU! aldizkariaren koordinatzaile Eñaut Mitxelena (zutik, eskuinetik hirugarrena), Argia saria esku artean duela, 2007ko gainerako sarituekin.